



HPT: "EZ DUGU INPOSAKETARIK ONARTUKO"

Lehenik eta behin eskerrik asko Hezkuntza Plataformen Topagunearen deialdi hau babestu eta gurekin zaudeten hezkuntza eragile, sindikatu, eskoletako zuzendaritza talde, ikasle, hezitzaile, familia eta herritarrak, orokorrean:

LOMCE inposatzen ari zaigu. **LOMCE espainiar hezkuntza legea gure ikastetxeetan sartu digute. Nafarroako Gobernuak zein Eusko Jaurlaritzak, hau da, UPN-k eta PNV-k LOMCE aplikatzeari ekin diote.** Ingurune ikasgaia bitan zatitu beharko da akta ofizialetan, erlijioa lehenetsunezko ikasgaia da matrikulazioan, erabat euskalduntzen ez duten hizkuntz ereduak mantentzen dira, erabaki organo gorenetakoa erabakitzeak eskubidea murriztu da, eta abar luzea. Gainera, LOMCE aplikatzen ari dela ziurtatzeko, errebalidak jarri dituzte martxan: 3. mailako ebaluazio diagnostikoa inposatu zaigu; alegia, LOMCEren arabera lehenengo frogara.

LOMCEren kontra gaude, argi dago. Mahai honen atzean dagoen jende morderoa eta Euskal Herriko toki ezberdinetan mobilizatzen ari dena ikustea besterik ez dago. Eta LOMCEren kontra egoteaz gain, inposatu nahi zaigun 3. mailako lehen frogara horren kontra gaude ere. Euskal Herria espainiar lege arrotz horren kontra dago, zalantzarik ez.

Hezkuntza eragile gehienek eta baita zenbait alderdi politikok ere, gainera, azterketa hau ez egiteko dei zuzena egin dugu eta gaurkoan errepikatuko dugu: **3. mailako azterketari planto egingo diegu**, inongo ondorio akademiko edota administratiborik ez duelako, gainera.

Eta inoizko aukerarik egokienak daude azterketa honi aurre egiteko, borondatea da behar den bakarra, nahi izatea.

Eta herritarrak hasi gara dagoeneko desobedientzia ekimenekin, gainera. Astelehenean bertan **Nafarroako Gobernuak ekin zion azterketa hauek egiteari "A la Navarra"**: 4 egunetan luzatu dute azterketa. Arrotza eta erabat antipedagogikoa. Baina hezkuntza komunitateak tinko erantzun du eta planto egin dio. Hamaika izan dira azterketa egin ez duten ikastetxeak, hamaika azterketa egin ez duten ikasleak eta hamaika ere planto egin duten familiak. Doakie gure babesa guzti horiei eta baita Txantrean itxialdian parte hartu zuten 8 lagunei.

Eusko Jaurlaritzak, aldiz, isilean darama aplikazio hori. Xurumurruek besterik ez daude ikastetxeetan. Informaziorik ez digute eman. Non egingo dira frogak? Noiz? Nork diseinatu eta nork zuzenduko ditu? Galdera hauen aurrean Hezkuntza Saila mutu dago. Jakin dezala Uriarte andreak, gu ere antolatzen hasiak garela eta frogara hauei planto egingo diegula. **Pilotajearen soinekoarekin mozorrotu nahi izan badituzte ere, LOMCEren aplikazioa da bete-betean**, beraz, ez gaude asumitzeko prest. Aste honetan bertan agertu dira lehenengo familia objektoreak, eta ziur gaude askoz gehiago ere agertuko direla laster.

Eta inork ez dezala pentsa aurtengo erantzun soil bat dela. Aurrerantzean etor litezkeen frogara berriei ere planto egingo diegu. Kapasak garela erakutsi dugu eta horretan inbertituko dugu gure ahalegina. Gure hezkuntza sistema eraikitzeari oztopo nagusia jartzen dioten ebaluazio arrotzei planto egingo diegu, ikasturte honetan, eta baita gainontzekoetan ere. Hau ez delako azterketa soil bat; errebalidez osatutako sistema baten lehen pausoa da. Hezkuntzan eman nahi dituzten aldaketa guztien bermea diren errebaliden lehen urratsa, hain zuzen ere. Argi dugu, LOMCE ez plikatzeko edozein mekanismo baliatuko dugu, izan ebaluazioen, zein ikas-materialen edota ikasgai inposatuen kontra.

Beraz, Hezkuntza Plataformen Topagunea sortu genuenetik aldarrikatzen dugun bezala, inposaketarik onartuko ez dugulako eta LOMCEren kontra gaudelako, egunegun Euskal Herriko Hezkuntza Sistema Propioa eraikitzen jarraituko dugu.

Eskerrik asko!

